OSASUNGOA
EUSKALDUNTZEKO
ERAKUNDEA

2012. URTEKO MEMORIA

2012. URTEKO MEMORIA

Bai Euskarari Ziurtagiria
bai
Guk zerbitzua eta lana euskaraz

AURKIBIDEA

1. Osasun Biltzarra 3

2. Sariak 4

3. Zuzendaritzaren jarduera 5

4. Webgunea 6

5. OEEberri 7

6. Bestelako ekintzak 9

7. Bazkideak 10

1 OSASUN BILTZARRA

- Bilbon egin zen 22. Osasun Biltzarra, Bizkaiko Medikuen Elkargoarekin batera
- Gaia "Ikerkuntza:ezagutzatik ekintzara" izan zen
- Maiatzaren 18 eta 19an izan zen
- 114 lagunek hartu zuen parte
- Guztira, 215 pertsonek idatzi zuten, aurkeztutako 45 lanetan: 12 hitzaldi, 9 ahozko komunikazio, 22 poster eta 2 tailerretan
- Testuingurua: Langileon erronka berrien inguruan hitz egin zen. Aldaketak datoz osasun-sistemara eta horietako batzuk kanpotik datoz. Osasungintzan aurreikusten diren diru-murrizketak zerikusi handia izango du osasun-langileen lan-baldintzetan, non medikalizazioa, lan-arazoak eta teknologien berrien erabilpenak, adibidez, krisiak baldintzatuta egongo diren
- Hiru mahai-inguruak hauek izan ziren: Bizitzaren medikalizazioa, Osasun-langileak gaixotzen direnean eta Osasun-langileak eta teknologia berriak
- Bi hitzaldi izan ziren, osasun-zerbitzuetan euskararen egoerari buruzkoa horietako bat —*Osasungintza publikoaren hizkuntza-politikak eta planak*— eta *Espondilitisak ia izorratu ninduen* bestea.



2 SARIAK

Agote Saria

- LKS eta Mondragon Health erakundeekin batera antolatzea lortu zen, eta gastuak enpresa hauek hartuko dituzte.
- Deialdia egin zen eta 4 lan aurkeztu ziren abenduan:
  - Alkohola eta aho barruko minbizia
  - Neuromuskulueskeletikoen froga diagnostikoen eskuliburua
  - Giza Histologia
  - Leuzemia akutuak

2012ko Agote sariak

12. Jose Antonio Agote Saria

SARRERA:

OEE euskara osasun-arloan sustatu eta bultzatzen duen elkartea da, euskararen erabilerari eutsiz, irakaskuntzan, heziketan, eta lan-zentroetan, arloko profesionalen artean erabilera bultzatuz eta indartuz, osasunari buruz euskaraz idatzitako aldizkari eta argitalpenen sorrera lagunduz, helburu eta jarduera horiei dagozkien ekitaldiak (hitzaldiak, mahai-inguruak, etab.) antolatuz, eta era guztietako erakunde, elkarte, entitate edo partikularrekin lankidetzan arituz.

Helburu horien barruan, OEEk Agote Saria, osasunarekin lotutako ikasgai ezberdinen euskarazko testuen sormena eta argitalpena bultzatzeko sortu zuen. Deialdi honetan, eta aurrerantzean ere hala izango da, **LKS**ren eta **Mondragon Health**en babes ekonomikoa jaso du **OEE**k eta hiruron arteko lankidetza da, beraz, antolatu dugun sariketa.

Ugarteburu Saria

- Azkue Fundazioak du ardura handiena
- 2012ko irabazleak hauek izan ziren:
  - Osasun Zientziak: Carlota Ruiz, "Arreta Galdu-Hiperaktibitate Asaldura" artikuluarekin
  - Gizarte Zientziak: Maider Gorrotxategi, "Garapen Psikosoziala" artikuluarekin
  - Teknika eta Teknologia: Iratxe Gomez, "Clarke eta Park-en transformatuak" artikuluarekin

3 ZUZENDARITZAREN JARDUERA

Zuzendaritza-bilerak

- 2012an hiru zuzendaritza-bilera egin ziren
- Besteak beste, hauek izan ziren jorratu diren gai nagusiak:
  - Osasun Biltzarra: Bizkaikoa eta Nafarroakoa
  - Sariak: Agote eta Ugarteburu
  - Komunikazioa hobetzea: webgunea, OEEberri, prentsa…
  - Gipuzkoako ekimenak: bertso-saio klinikoa, Donostiako kanpaina, Medikuen Elkargoko Euskara Batzordea…
  - Bizkaiko ekimenak: bertso-saio klinikoa, Boloniari buruzko hitzaldia, Medikuen Elkargoko Euskara Batzordea…
  - Egituraketa juridikoa
  - Osasun-zerbitzuetan euskaraz: Donostiako euskaraz osasuntsuago kanpaina, beste herrietako interesak, Behatokia, Kontseilua…
  - Ekonomia: bazkideak, babesleak…
  - Jende gaztearen parte-hartzea elkartean

Harremanak

- Kanpo-harremanak gero eta gehiago egiten dira eta 2013an jarraipena izango dute. 2012an Osasun Saileko arduradun berriei bilera-eskaera egin zaie, osasun-zerbitzuetan euskaraz ezin egiteagatik izan diren kasuen jarraipena egin da (Behatokia, Bittor Hidalgo, Aitor Montes…), eta abar

Karguak

- 2012an ez da aldaketa ofizialik egon baina Araban eta Bizkaian ordezkari berri bana hasi dira

4 WEBGUNEA

- Gure komunikazio bide nagusienetakoa da, OEEberrirekin batera
- 2012an eduki asko sartu dira eta guzti horri esker, webgunea gero eta gehiago ikusten da. Sartutako edukiak:
  - Albisteak: 78 albiste sartu dira, astero bat baino gehiago
  - Agiri-fondoa: biltzarretako hitzaldi, komunikazio, ahozko aurkezpen eta beste zenbait eduki jasotzen dira hemen. 2012an 200 edukitik gora heldu ginen
  - Bestelakoak: Sariak, Osatuberri…
- Diru laguntza lortu ondoren hobetzen jarraitu dugu.
- Elkartearen beharrak bideratzeko tresna egoki bihurtu da.
- Finkatu eta atal ezberdinak hobetzen jarraitu beharra dago.

Izenburua	Egilea	Mota	Arloa
Topaketen gidaliburua	OEE	Topaketen komunikazioak	Hizkuntz Politika
Hizkuntza Eskubideak Osasungintzan	Behatokia	Topaketen komunikazioak	Hizkuntz Politika
XXII. Biltzarraren egitaraua	OEE	Komunikazioak	Osasun-langileon erronka berriak
Euskaraz Osasuntsuago Kanpainaren eskuorria	Bagera eta OEE	Eskuorria	
6. Osasun Jardunaldiak - Eritasun Kronikoak eta Bizi Kalitatea	OEE	Komunikazioak	Kronikotasuna
10. Osasun Jardunaldiak - Osasuna Denontzat 2000. urtean	OEE	Komunikazioak	Dermatologia
15. Osasun Jardunaldiak - Adimen Osasuna, Oztopoak Gainditzen	OEE	Komunikazioak	Dermatologia
Jarduera fisikoa eta elikadura	Aritz Urdampilleta	Komunikazioak	Dietetika eta nutrizioa
Gaixotasun arraroei buruz	Mikel Baza. Familia Medikua	Baga Biga Blog!ean argitaratutako artikuluak	Gaixotasun arraroak
Fibrilazio aurikular presexzitatua	German Zugazabeitia, Larraitz Gaztañaga	Baga Biga Blog!ean argitaratutako artikuluak	Kardiologia
3.11. Eranskinak 1	Roberto Manjon Lozoya	Hitzaldia	Hizkuntz Politika
3.11. Eranskinak 2	Roberto Manjon Lozoya	Hitzaldia	Hizkuntz Politika
3.11. Eranskinak 3	Roberto Manjon Lozoya	Hitzaldia	Hizkuntz Politika
Begietako patologia	Hernaniko Osasun Zentroa	Pazienteentzako Gomendioak	Oftalmologia
Eguzki-erredurak / Eritema	Hernaniko Osasun Zentroa	Pazienteentzako Gomendioak	Dermatologia
	Hernaniko Osasun	Pazienteentzako	

5 OEEBERRI

- 2012an ere, hutsik egin gabe, hilero argitaratu dugu, udako sasoian izan ezik.
- Landu diren gaiak:

Urtarrila	Osasun Biltzarra: komunikazioa aurkezteko epea urtarrilaren 31 arte zabalik Osasun Biltzarra: talde antolatzaile eta zientifikoaren bilera EHEren aldizkarian osasuna eta euskara hizpide Bazkideontzako zozketa
Otsaila	Bertso Saio Klinikoak martxoaren 9an Osasun Biltzarraren antolaketa-lanak aurrera doaz Osasun-zerbitzuetan euskara normalizatzeko lantaldea: Xedera
Martxoa	Bertso-saio klinikoak berriz ere arrakastatsuak izan dira Iparraldean medikuen beharra dute Euskara gehiago erabiltzeko Osakidetzak prestatutako identifikazio-sistema geldirik EHUko Medikuntzako ikasleak Argian: “Euskaraz %33 gaztelaniaz %67” Itzultzaile automatikoa 2011ko EPEren Kronogramaren aurreikuspena Bazkideon kontua egunean Otsaileko Osatuberri kalean da
Apirila	Bilbon egingo diren OEEren Biltzarrean izena emateko epea zabalik Webgune berria daukagu! Euskarazko harremanak sustatzeko baratza
Maiatza	22. Osasun Biltzarrak gai berri asko jorratu ditu - Osasun-langileak gaixotzen direnean - Osasun-langileak eta teknologia berriak - Bizitzaren medikalizazioa - Euskararen arnasguneen beharra eta Osakidetzako Euskara Plana - Paziente baten propoposamena: zer egin espondilitisari aurre egiteko Datorren urteko Osasun Biltzarra Nafarroan VI. Topaketa pediatrikoak ekainean Bilbon Neuroerrehabilitazio titulurako aurre inskripzioa zabalik
Ekaina	Osakidetzak hiru gida praktiko egin ditu: Pediatria, Medikuntza Orokorra eta Harrera Neuroerrehabilitazio graduondoa Bizkaiko Sendagileen Elkargoan Euskara Batzordea sortu da Berria zure ziztadaren bila
Iraila	Neuroerrehabilitazioari buruzko graduondoa Bizkaiko OEE eta Bizkaiko Sendagileen Elkargoaren Euskara Batzordea Baga Biga Blog! Osasuna 2.0aren alorrean topalekua izateko jaio den gunea Neuromuskulueskeletikoen proba diagnostikoen ikastaroa

Urria	PINa jarriko al dugu? Euskara Batzordeak Bizkaiko eta Gipuzkoako Medikuen Elkargoetan Bertso Saio Klinikoak Bizkaira itzuliko dira azaroaren 30ean Pazienteentzako fitxak euskaratu nahi ditugu denon artean Webgunean zer dago ikusgai? Bazkideen urteko kuota Datorren Osasun Biltzarra Nafarroan: Haurtzarotik Gaztarora
Azaroa	Azaroaren 30ean Bertso-saio klinikoak Bilbon Agote sariak 2012 Eman izena euskarak Googlen bere ikur propioa izan dezan Euskararen Egunean Maite ditugulako Euskararen erabilera bermatzeko, hizkuntza-politikak aldatzeko eskatu du Europak Euskarabildua Kontseiluak manifestazio-deialdia egin du abenduaren 1erako
Abendua	Iruñeko Osasun Biltzarrerako komunikazioak aurkezteko epea zabalik Bertso Saio Klinikoa Bizkaian Agote sariak 2012 Hernaniko Osasun Zentrotik pazienteentzako fitxak euskaraz luzatu dizkigute Osabide euskaraz, hizkuntza eskubideak bermatzeko Pazienteentzako orriak euskaratzeko proiektua Euskararen Egunean egindakoak

6 BESTELAKO EKINTZAK

Euskaraz Osasuntsuago kanpaina

- Bagerarekin batera landu da
- Guztira lehen atentzioko medikuen 65 aldaketa eta pediatren 2 aldaketa eskatu ziren
- Balorazioa egin da idatziz hobetu daitezkeen puntuekin
- 2013an Kontseilua, Behatokia, UEMA eta beste agenteekin zerbait zabalago egiteko asmoa dago
-

Medikuen Elkargoetako Euskara Batzordeak

- Aurten Bizkaian eta Gipuzkoan mantendu egin dira eta hainbat ekimen egin dira: bertso-saioak, hitzaldiak…

Zenbait

- Berrialaguna kanpainari babesa eman diogu
- CAMFICeko fitxak lantzen laguntzeko proposamenari babesa eman zaio
- OEEren logoarekin euskarri handiak egin dira gure kanpainatan erabili ahal izateko

7 BAZKIDEAK

- Bazkideen datu basea eguneratzen jarraitu dugu eta 20 zuzenketa egin dira: helbideak, posta elektronikoak…
- Txukunago dagoen arren, webgunearen bidez bakoitzak bere datuak eguneratzeko aukeran sakondu beharra dago.
- Bazkideek haien agiri guztiak edozein unetan ikusi edo inprimatzea errazago dute orain
- Urte-amaieran 348 bazkide ginen. 2013an, apiril arte, 11 bazkide berrik eman dute izena.